

Protestari jarraitzen dion etsipen fasean, nabarmena da oraindik ama galtzeak sortzen dion kezka, nahiz eta jokabideakgoraka doan etsipena adierazi. Haurra barnerakoi eta ez aktibo bihurtzen da, ez dio axolik inguruan gertatzen denak eta erabat tristeturik agertzen da. Egoera horren aurrean, batzutan, etsipenak behera egin duelako ustea izaten dugu, oso oker uste ere.

Fase horretan hain zuzen ere, haurraren axolagabetasuna, ohean geldirik eta txintxo egoten denez, medikuek eta erizainek jokabide on baten seinale bezala hartzen dute, gaiso on bat dela esanez.

Bereizte fasea (detachment), lehenago edo beranduago, protesta eta etsipen egoeren ondotik dator eta, sarritan, errekupeazio seinale bezala hartzen da, haurra inguruagatik interesatua sentitzen delako. Haurrak ez ditu erizainak gaitzesten jadanik. Onartu ditu haien zaintzea, jana, eskaintzen zaizkion jostailuak, barre egin dezake eta elkarkoia da. Halere, amak bisitatzen duenean, gauzak ondo ez doazela ikus daiteke. Amari harrera ona egin ordez, ezagutzen ez duelako papera egin dezake, haren aurrean uzkur eta geldo azalduz. Harenganako erakusten zuen interesa galdu duela dirudi.

Gauza ezaguna da adinak duen garrantzia, haurraren gan ospitalizazioak izan ditzakeen ondorioei begira. Gutxi gorabehera 7 hilabete eta 3-4 urte bitartean aurkitzen direnak psikologikoki zaurigarrienak bide dira; es-

OSPITALIZAZIOARI BURUZ IZATEN DIREN OHIZKO ERREAKZIAOK FARLEY ETA COLSEN IRITZIZ

- 1) Ondoeza, ezerosotasuna eta suminkortasuna.
- 2) Loa eta jateko gogoaren desarauketak.
- 3) Erregresioa, pasatako portaerak azaltzen direlarik, hala nola: Behatz lodia zupatzea, biberioiez elikatzea berriro, portaera zorrotza, eranskorra, negatibista eta. Hizketan eta esfinteren kontrolean ere ageri da erregresioa, bereizketa hersturaren gehiegikeria eta.
- 4) Depresioa, izaeraren gorabehera handiak, portaera hipo eta hiperaktiboa.
- 5) Fobia eta babes ezaren sentimenduak, gutxiegitasuna eta segurtasun-eza agertzea.
- 6) Izaera konpultsibo edo erritualizatu portaera estereotipatuaren igoera.
- 7) Gaisotasunaren esanahiaren, ospitalizazioaren edo interbentzio kirurgikoaren interpretazio okerra. Horrela, adibidez, mina edo interbentzio mingarriak, benetako edo irudimeneko zigor edo etenak bezala har daitezke. Gorputz zatiak galtzeko beldurra prozedura terapeutikoe-kin erlazionatua egon daiteke, batez ere buruari, begiei edo ernaltze organoei dagokienean.

- 8) Haurraren nabaritzen dira baita ere heretasun konkomitante psikologikoak: takikardia, taupadak, hiperbentilazioa eta berazkoa.
- 9) Histeriko tipoko konbertsio erreakzioak era nabari daitezke.
- 10) Erreakziodisoziatiboak, oroimen-galtzea edo sasi-eldarnio egoerak.
- 11) Benetako eldarnioa.
- 12) Erreakzio psikotikoak (toxikoak edo zenbait medikamenturen ondorengoak, antikonbultsiboak eta adrenokortikotropinak bezalakoak).
- 13) Adaketak gorputz irudian, bereziak dira erredura kasuetan, traumatismoetan edo zenbait medikamentu irensten direnean.
- 14) Elbarritasun kronikoa.
- 15) Norberaren kontrol galtzearen beldur oroiterazleak eta anestesiak irauten duen denborari dagozkion fantasiak, ernaltze organoen manipulazio edo mozketari buruzkoak.

kolako adina dutenen artean, aldiz, ondorio larriak gutxitan gertatu ohi dira. Edozein modutara, 7 hilabetez beherrako muga nabarian ezartzea garrantzizkoa da, zeren tradizioz onartua zegoen ideia —adin horretan arriskuak, 2 edo 3 urteko haurrek dituztenekin konparatuz, baxterre agerikoak ez direla dioena, alegia— egun eztabaidatzen ari bait da. Zenbait autorek diotenez, bularretako haurrek, oro har, amarengandik bereiztean pisua hartzeari uzten diote; beronen arrazoiak, negar egitean duten likidogalera edo energia gastu handiegia izan daitekeelarik.

Edozein eratara, hemen azpimarratu nahi dena da medikuntza literaturan behin eta berriz aipatu den arazoa, etsipenez baina, ospitaleko atentzio kostuen zerrrenda barruan kontabilizatzen dela, azken emaitza positiboa delako segurtasuna izanik eta ingesatzera behartu duen gaitzak exigitzen duen medikuen atentzioa balantzean zer pisu duen kontuan harturik.

Fenomeno arrunta da gaizki dauden hainbat gauza onartzea, berez nahitaezkoa den ekintza baten ondorio beharrezkoak bailiran. Urte askotan pentsatu da, adibidez, zentru handiak direla gaizki horniturik dauden ospitaleen alternatiba bai eta medikuen atentzio on bat elkartezina dela etxerako medikuak duen tratu familiarrekin. Halatan, konpetentzia teknikoak deshumanizazio graduaren arabera neurtzeko arriskua dugu, bi elementu osagarri balira bezala.